

2.6. gaia

Azpiprograma ariketak

1. Ondoko formula kalkulatzeko duen programa egin

$$\frac{A}{B} = \frac{A!}{B! \cdot (A-B)!}$$

Programa hau ebatzeko azpiprogramak erabili.

2. Hiru zenbaki oso irakurri eta erabiltzaileari menu batean batura edo biderkadura egiteko aukera ematen dion programa egin. Egiten duen aukeraren arabera dagokion eragiketa eginez. Programa hau ebatzeko prozedurak erabili.
3. Zilindro baten azalera eta bolumena kalkulatzeko dituen programa egin. Programa hau ebatzeko funtzioak erabili.
4. N zenbaki osoa emanda, perfektua den ala ez esango duen programa espezifikatu eta egin. Oharra: N zenbaki osoari perfektua esaten zaio, bere zatitzaileen (N ezik) batura N bera denean.
5. Zero zenbakiaz amaitzen den zenbaki osoen sekuentzia bat emanda, sekuentziako zenbaki perfektuak idatziko dituen programa espezifikatu eta egin. Egokitu aurreko ariketako programa, oraingo honetan prozedura modura erabili ahal izateko.
6. N zenbaki oso positibo bat emanda, bere atzekoz aurreko zenbakia kalkulatzeko duen algoritmoa espezifikatu eta egin. Adibidez, 485 zenbakiaren atzekoz aurreko zenbakia 584 da; hau da, digitu berberak baina atzekoz aurrera jarrita ditu.
7. N zenbaki oso bat emanda, kapikua den ala ez kalkulatzeko duen programa espezifikatu eta egin. Oharra: N zenbakia kapikua da, bera eta bere atzekoz aurreko zenbakia berdinak badira.
8. 10 zenbaki oso irakurri eta bere batezbestekoa baino haundiagoak diren zenbakiak zeintzuk diren esan.
9. 10 zenbaki oso irakurri eta zenbaki bakoitzaren errepikapen kopurua zenbatekoa den adierazi